

TREBAKUNTZA PLANAREN ARAUDIA 2018

Pertsonak dira Bizkaiko Foru Aldundiaren aktiborik garrantzitsuena eta Bizkaiko Foru Aldundiaren funtsezko jarduera bat da langileen trebakuntza. Horregatik, trebakuntza-plan bat garatzen du urtero, hainbat atalez osatuta. Atal horietan, xede eta helburu guztiak biltzen dira, eta prestakuntza-jardueretan islatzen dira. Foru Administrazioak gauzatu eta kudeatzen ditu jarduera horiek, oso-osorik.

Planaren helburuak hiru arlotara hedatzen dira: lehenengo arloa eta nagusia, zerbitzu publikoa etengabe hobetzea da, bestela ezin izan daiteke eta, izan ere, horixe baita gaur-gaurko administrazio publiko baten xedea; bigarrena, erakundea instituzio moderno bihurtzea da, hitzaren zentzurik zabalenean, pertsonak lanpostuetara erabat egokituta egon daitezen, eta, azkenik, funtsezko helburua da pertsonak asetzea, etengabeko trebakuntzaren eta lanbide-sustapen eta -proiektzioen bitartez. Aurrekoaren ondorioz, prestakuntza tresna estrategiko bat da. 2018rako proposatzen den planean, inplikaturako eragile guztiek hartu dute parte, hori baita planari buruz azpimarratu beharreko ezaugarrietako bat.

Bizkaiko Foru Aldundiaren zeharkako printzipioak dira trebakuntza-planaren inspirazio-iturri: emakumeen eta gizonen berdintasuna, aukera berdintasuna, iraunkortasuna eta benetako elebitasuna.

Aurten, zeharkako lau plan daude, printzipio horiei lotuta (berdintasuna, iraunkortasuna, gardentasuna eta elebitasuna). Gainera, jardute onari lotuta, kudeaketa publiko aurreratuko plana eta kontratazio-plana daude, zeinen helburua baita jarduerak hobeto eginez erakundearen helburuak lortzea.

Esandako guztiagatik, araudi bat behar dugu, prestakuntza motak zehazten dituena, eta hartzaileak, ikastaroetarako sarbidea, ziurtagiriak, ondoriozko atsedeen-orduak eta abar arautzen dituena prestakuntza-jarduera bakoitzerako.

1. ARTIKULUA

Trebakuntza motak

Bizkaiko Foru Aldundiko langileentzako 2018rako Trebakuntza Plana hurrengo trebakuntza motatan dago egituratuta, planaren helburuak betetzeko:

1. Lanposturako trebakuntza. Trebakuntza mota honen helburua da gaitasunak hobetzea eta lanposturako etengabe egokitzea. Ezagutza arloak sartzen dira mota honetan, baita mikroinformatika ere. Beharrizanei buruzko diagnostiko-sistemaren ondorioa da.

2. Karrerako edo hobekuntzako trebakuntza. Trebakuntza mota honen helburua da betetzen den lanpostuarekin zerikusia duten edo ez duten gaitasun eta ezagutzak garatu eta hobetzea.

3. Funtzionario sartzeko deialdien ondoriozko trebakuntza. Trebakuntza honen helburua da funtzionario plazak lortzeko hautapoben deialdietan jasotako trebakuntza-aldiak egitea.

4. Giza Baliabideen Plana garatu eta betetzearen ondoriozko trebakuntza. Trebakuntza mota honen helburua da plan horrek jasotzen dituen jarduerak gauzatzea.

5. Sustapenerako trebakuntza. Barne sustapeneko deialdiak garatzeko eta deialdi horretan sartu eta parte hartzeko trebakuntza da.

6. Lan-poltsak kudeatzeko trebakuntza, lan egin ahal izateko beharrezkoa denean.

7. Sarbideko trebakuntza. Funtzio publikora sartzen diren pertsonentzat da trebakuntza hau, dagokien lana hobeto bete eta txerta dezaten.

8. Europar Batasuneko hizkuntzen arloko prestakuntza.

9. Trebakuntza orokorra eta oinarrizkoa. Trebakuntza orokorra eta oinarrizko trebakuntza, lanpostuaren eginkizun zehatzen nahiz interes orokorreko berrikuntzen inguruko gaiei buruzko ezagutzak eskuratzeko dena. Trebakuntza honetan ez da beti emango ziurtagiria.

10. Zeharkako trebakuntza. Zeharkako plan bat duten arloei dagokien trebakuntza da. Zeharkako plan horiek Foru Administrazioaren jardunaren printzipioei lotuta daude edo haiek bideratzea dute helburu.

2. ARTIKULUA

Sarbidea

1. Lanposturako trebakuntza-ikastaroetarako sarbidea ikastaroaren berezko jasotzaileen arabera zehaztuko da, hau da, trebakuntza jaso behar duten lanpostuetan dauden pertsonen arabera; baina salbuespena izango dira, printzipioz, aldi baterako langileak. Azken horiek beren burutzaren txosten arrazoitu bat aurkeztu beharko dute aurretik, non beren-beregi jaso behar den lotura estu-estua dagoela ikastaroaren edukiaren eta langilearen eskumenaren artean.

Ikastaroak egiteko unean, beharrezkoa da zerbitzu aktiboan egotea. (Aldi baterako ezintasunaren ondoriozko bajaran izanez gero, ezin izango da ikastarorik egin).

Ezin izango da aurreko urteetan eginiko mota bereko ikastarorik egin, ikastaroaren gaian izandako lege- edo arau-aldaketa garrantzitsuek justifikatzen dutenean izan ezik. Kasu horretan, burutzaren txostena aurkeztu beharko da.

Lanposturako trebakuntza nahitaezkoa da berez.

2. Karrerako edo hobekuntzako trebakuntzarako sarbidea askea izango da ikastaroaren baldintzak betetzen dituzten langile finkoentzat. Ikastaroak egiteko unean, beharrezkoa da zerbitzu aktiboan egotea (aldi baterako ezintasunaren ondorioz bajaran izanez gero, ezingo da ikastarorik egin). Ezin izango dira batera egin presentziazko karrerako edo hobekuntzako trebakuntza-ikastaroak eta on line ikastaroak, egutegiek bat egiten dutenean.

Langile finkoek aurkezturiko eskabideekin ez badira ikastaroren bateko leku guztiak betetzen, bitarteko langileek ere parte hartu ahal izango dute.

Trebakuntza hau borondatezkoa da.

3. Hizkuntzen arloko trebakuntza. Hizkuntzen arloko trebakuntza-beharrizanen diagnostikoaren prozesuaren ondorioz, lanpostu batzuetan hizkuntzen arloko trebakuntza-beharrizanak daudela hauteman eta frogatu da. Bada, lanpostu horietan dauden langile finkoek hizkuntzen arloko trebakuntza egin dezakete. Borondatezkoa izango da. Atzerriko hizkuntza jakitea betekizun legez jasotzen bada lanpostuen zerrendan, horri buruzko prestakuntzak lanposturako prestakuntzaren izaera izango du.

4. Gainerako trebakuntza-kategorietarako sarbidea eragiten dituen administrazio-egintzak definituko du eta, oro har, nahitaezkoa izango da. Sarbideko trebakuntza beti izango da nahitaezkoa.

5. Berdintasun eta eraginkortasun printzipioak ezarrita, Bizkaiko Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planeko euskara-ikastaroetara doazen langileek ezingo dute lanposturako trebakuntzan parte hartu jarduera bien ordutegiek bat egiten dutenean.

6. Euskaraz ematen diren trebakuntza-ikastaroetan parte hartzeko, ikastaroa egiteko eskatzen den hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da.

3. ARTIKULUA

Ikastaroetara joateko araubidea

Lanposturako trebakuntza lan-ordutegiaren barruan egingo da eta, oro har, goizeko lanaldian (egutegi berezietan izan ezik, kasu horietan, ordutegiek berek zehaztuko dute araubidea).

Trebakuntza-jarduera bakoitza egiteko zortzi pertsona beharko dira, gutxienez. Salbuespen gisa, kide gutxiago dituzten kategorien edo unitateen kasuan, ikastaroa egiteko baimena eman ahal izango da; horretarako, erabakia behar beste arrazoitzen duen txostena eman beharko da.

Goizeko lanaldian egin ezin direnean, arratsaldekoan egingo dira, eta, horren ondorioz, honako atsedeen-ordu hauek izango dira:

a) Astean arratsalde batean lan egiten duten langileentzat: Lan egitea egokitzen zaien arratsaldea benetan lan egindakotzat joko da, eta ez du konpentsaziorik ekarriko. Gainerakoak honela konpentsatuko dira: ikastaroko ordu bakoitzeko 1,75 orduko konpentsazioa (ordu 1 = 1,75 ordu) izango da; ateratzen den zenbatekoan ikastaro-egunetan gertatzen diren lanaldiaren murrizketa guztiak sartuko dira (egutegiaren arabera hurrengo orduak eta minutuak: ordu 1 eta 15 minutu, ordu 1 eta 30 minutu; ordu 1 eta 34 minutu; edo ordu 1, uda izanez gero). Konpentsazio ordu horiek arratsaldetan hartuko dira urtean zehar.

b) Goizeko lanaldia duten langileentzat ere goiko atalean aipatutako atsedeen-ordu berak ezarriko dira, eta haien egutegiaren arabera hartu ahal izango dituzte:

- 7 ordu eta 30 minutuko egutegia: 2 ordu eta 30 minutu gehienez, urte osoan zehar.

- Neguan 7 ordu eta 34 minutuko egutegia eta udan 7 ordukoa: neguko lanaldian, 2 ordu eta 34 minutu gehienez, eta udan, 2 ordu gehienez.

Kasu bi horietan, ordaindu egin ahal izango dira sortzen diren kalte-ordainak.

Lanposturako trebakuntza-ikastaroen jasotzaileek urtean ezin izango dituzte egin 20 trebakuntza-ordu baino gehiago. Langile batek kopuru hori betetzen duenean, ez da haren aldeko beste matrikularik egingo. Zenbaketa horretan ez da sartzen kanpoko trebakuntza (arau propioak baititu) ezta zeharkako planekin lotutako trebakuntza eta trebakuntza orokorra eta oinarrizkoa ere.

Langile bat, matrikula egin ondoren, ikastaro batera joaten ez bada, agertu ez den ikastaro horretako orduak kendu egingo zaizkio urte osoan lanposturako dituen trebakuntza-orduetatik, eta ezin izango du egin karrerako edo hobekuntzako trebakuntzarik. Hala egingo da, baldin eta, ikastaroa hasi baino bi (2) egun baliiodun lehenago, Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuari (BFAREN TREBAKUNTZA postontzia) uko egitearen jakinarazpena egin ez badio. Ez da neurri hau hartuko gaixotasuna, oporrak edo aurrez ikusi ezin daitezkeen arrazoiak direla-eta joan ez bada.

On line ikastaroetako konexio-ordutegia, 00:00etatik hurrengo eguneko 24:00ra bitartekoa izango da, oro har. On line ikastaroen presentziazko saioak benetako lantzat joko dira lan-orduetan egiten badira. Halakotzat joko dira presentziazko saioa bera eta saiora joateko edo saiotik lanpostura etortzeko denbora. Oro har, gehienez ere ordu erdi emango da ikastarora joateko, eta beste ordu erdi bueltatzeko, edo, bestela, ordutegiaren kontrolari buruzko araudian joan-etorriak egiteko ezarritako denbora.

Mikroinformatika arloko lanposturako prestakuntza, oro har, on line izango da, eta aprobetxamendu-proba izango du beti. Ondorio horietarako, lanean egindako denboratzat joko da. Ikastarora ez joateari dagokionez, lanposturako trebakuntza tradizionalerako dauden parametro berak ezarriko dira, baina ez joateko aurre-abisua emateko epea gutxienez hiru (3) egun baliiodunekoa izango da.

Lanposturako trebakuntzari dagozkion mikroinformatikako ikastaroetan beharrezkoa izango da lanpostu bakoitzak egingo den ikastaroari dagokion softwarea instalatuta edukitzea. Ondoren zehazten diren gaietan programaren instalazio zehatza behar da. Ikastaroan matrikulatutakoari dagokion zerbitzuak instalaziorako behar diren lizentziak erosi beharko ditu (lizentzia bat lanpostuko). Hauek dira gaiak: Adobe Dreamweaver, Adobe Acrobat, Microsoft Project.

2. Karrerako edo hobekuntzako trebakuntza arratsaldez egingo da.

Ezin izango da aurreko urteetan eginiko mota bereko ikastarorik egin, ikastaroaren gaian izandako lege- edo arau-aldaketa garrantzitsuek justifikatzen dutenean izan ezik. Kasu horretan, burutzaren txostena aurkeztu beharko da.

Urtean zehar, borondatezko hiru ikastaro egin daitezke gehienez. Ikastaro bat 40 orduetik gorakoa denean, ikastaro bakarra egin ahal izango da. Gutxienez 8 eskabide beharko dira trebakuntza-ekintza bat egin ahal izateko.

On line egiten diren ikastaroak, irauten dutena irauten dutela, ikastarotzat hartuko dira, eta haien araubide juridikoa dagokien trebakuntza motarena izango da.

Eskabideak Bideratuz bitartez aurkeztu beharko dira (12110 prozedura), gutxienez ikastaroa hasi baino 20 egun natural lehenago.

Parte-hartzeari, eskabideei eta bestelakoei dagokienez, arazorik gerta ez dadin, eta ikastaroetarako dauden lekuak hobeto kudeatzeko, oro har, batera aurkeztuko dira urteko eskabide guztiak.

Eskabideek ikastaro bakoitzean onartua izateko irizpideak betetzen dituztela egiaztatuko da. Eskabide gehiegi izanez gero, zozketa bat egingo da, zeintzuk onartu behar diren aukeratzeko. Zozketaren emaitzak abizen oso bat ezartzen dio ikastaro bakoitzari, eta abizen horretatik hasita aukeratu da ikastaroa nork egingo duen, ikastaroari dagozkion plazen kopurua bete arte.

Hala ere, ikastaroetarako lekuak emateko, lehentasuna izango dute hauek, urte batez: amatasun edo aitatasun baimena izan ondoren, zerbitzu aktibora itzuli direnak, edo, legezko zaintzagatik eta mendetasuna duten adinekoak edo desgaitasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzian egon ondoren, lanera itzuli direnak. Horretarako, egoera horren berri eman behar diote Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuari lanera itzuli eta berehala, baldin eta ez badute eskubide hori baliatu aipaturiko aldi horietan zehar.

Era berean, lehentasuna emango zaie plan honen indarraldian zehar ikastaroren bat eskatu duten eta plazarik lortu ez dutenei, urte berean bi ikastaro egin duten pertsonen aurrean.

Langile bat, ikastaro bat eskatu eta onartu ondoren, ikastaro horretara joaten ez bada eta ikastaroa hasi baino bost (5) egun baliodun lehenago Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuari (BFaren TREBAKUNTZA postontzia) uko egitearen jakinarazpena egin ez badio, langile horrek ezin izango du egin karrerako beste trebakuntza-ekintzarik urte horretan. Ez da neurri hau hartuko gaixotasuna edo aurrez ikusi ezin daitezkeen arrazoiak direla-eta joan ez bada. Hauek dira arrazoi horiek: gaixotasuna edo istripua, haurdunaldia, erditzea eta edoskitzea, aitatasuna, adopzioa edo harrera, senideen gaixotasun larria edo heriotza edo senide baten edo langilearekin bizi den pertsona baten gaixotasuna edo istripu larria, adingabeak edo gorputz- nahiz adimen-urrituak zaintzea. Urtean zehar egiten diren informazio-jardunaldien kasuan ez da horrela jokatu; hala ere, jardunaldira joaten ez bada, aurretik jakinarazi beharko da.

Trebakuntza honen ondorioz, atsedeen-ordu hauek sortuko dira:

a) Goizez baino lan egiten ez duten langileek, ikastaroa arratsaldean egiten badute, ordu 1 eta 30 minutura arte / ordu 1 eta 33 minutura arte (edo ordu 1era arte udan bada) izango dute atsedeen-orduetan, bakoitzak hautatu duen lan egutegiaren arabera.

b) Astean arratsalde batean lan egiten duten langileek, goizeko lanaldia besterik ez duten egunetan ikastaroa arratsaldez bada, ordu 1 eta 15 minutura arteko atsedena izango dute.

Goizeko eta arratsaldeko lanaldia duten egunean, eta ikastaroa arratsaldez bada, 3 ordu eta 15 minutu libre izango dituzte.

Kasu guztietan, atsedeen-ordu horiek lanaldiko azkenak izango dira, eta kasu bakoitzean sortutako ordu libreen ondorioetarako, ikastaroa hasteko ordua joko da gehieneko mugatzat.

c) Arratsaldez egiten dituzten ikastaroetarako, jarduraldi bereziko egutegia duten langileek 2 ordu eta 20 minutu libre izango dituzte gehienez. Ikastaroaren iraupena 2 ordu eta 20 minututik beherakoa bada, lizentziak ikastaroaren iraupena eta joan-etorriko bidaietan emandako aldia hartuko ditu, betiere ordutegi-kontrolaren araubideak ezarritako balioak muga izanda. Lizentzia hori ezin izango da inola ere 2 ordu eta 20 minututik gorakoa izan.

On line karrerako prestakuntzak ez du ordu-konpentsaziorik sortuko.

On line ikastaroetara konektatzeko ordutegia 13:30etik hurrengo eguneko 7:30era bitartekoa izango da, oro har.

On line ikastaroen presentziazko saioetara joateko denboran eta azterketak egiteko denboran joan-etorriak egiteko denbora (oro har, ordu erdi, gehienez) eta saioaren edo azterketaren denbora sartuko dira.

Goizeko lanaldia duten pertsoneri edo astean arratsalde batean lan egiten duten pertsoneri (arratsaldez lan egiten dutenean presentziazko saiorik edo azterketarik ez badute), oro har, eguneko ordutegiaren eta 6 orduren arteko aldea emango zaie libre hartzeko (ordu bat eta 15 minutu, ordu bat eta 30 minutu edo ordu bat eta 33 minutu, ordutegi normalizatuen kasuan).

Mikroinformatika arloko karrerako edo hobekuntzako trebakuntza on line izango da eta urtean ikastaro bat egin ahal izango da gehienez. Libre hartzeko denboraren eta ordutegi-kontrolaren araubidea karrerako trebakuntza orokorrarena izango da. Lanpostutik kanpo ere egin ahal izango da, baldin eta ikastaroa egingo den ordenagailuaren baldintza teknikoek horretarako aukera ematen badute. Ikasle bakoitzaren ardura izango da ikastaroa lanpostutik kanpo egiteko beharrezko softwarea instalatu edo/eta konfiguratzea. Lantokietan ez da instalatuko ikastaroa egiteko nahitaez lizentzia erostea behar duen softwarerik. Aparteko kasuetan, software hori instalatuta duten lanpostuak egoki daitezke, eta lanpostu horietara joan ahal izango da ikastaroa egitera. Programa zehatzak instalatzea eta dagokien lizentzia erostea eskatzen duten gaiak hauek dira: Adobe Dreamweaver, Adobe Acrobat, Microsoft Project.

Lehentasuna emango zaie plan honen indarraldian zehar ikastaroren bat eskatu duten eta plazarik lortu ez dutenei, urte berean bi ikastaro egin duten pertsonen aurrean.

3. Sarbideko trebakuntza nahitaezkoa izango da eta lan-ordutegiaren barruan egingo da, lanposturako trebakuntzak duen araubide bera aplikatuta; mikroinformatikaren arloan, sailkapen-taldean arabera dago antolatuta.

4. Gainerako trebakuntza motetan, trebakuntza-jarduera sortzeko egintzak zehaztuko du jardueran parte hartzeko araubidea.

5. Zeharkako planekin lotutako trebakuntzan parte hartzeari dagokionez, lanposturako trebakuntzarako xedatutakoa beteko da.

6. Atzerriko hizkuntzen arloko trebakuntzak arautegi propioa izango du, eta on line egiten bada, ez du ordu librerik sortuko. Hala ere, presentziazko saiorik badago, arautegi honetan on line karrerako trebakuntzarako xedatutakoa beteko da.

4. ARTIKULUA

Trebakuntzaren ziurtagiria

Oro har, bai aurrez aurreko ikastaroetan, bai on line egiten direnean aprobetxamendu-proba bat egin behar da.

Aprobetxamenduari buruzko ziurtagiriak emateko, baldintza hauek bete behar dira:

Irakaskuntzako arduradunak ikastaro bakoitzaren amaieran ezarritako ariketa gainditzea.

Ikastaroaren eskola-orduetatik gutxienez % 80ra joatea.

Ez da paperezko ziurtagiririk emango, bakoitzak atera beharko ditu lortutako ziurtagiriak, IVAPen web-orritik deskargatuta.

5. ARTIKULUA

Egoera bereziak

Lizentziaren bat dutenek, dela haurdunaldia, erditzea, adopzioa edo umeak hartzeagatik, dela edoskitze orduak metatuta dituztelako, aitatasunagatik nahiz senideak zaintzeko baimenagatik, aurreko artikuluetan aipatutako ikastaroetara joateko/ikastaroak egiteko aukera izango dute. Horretarako, eskaera egin beharko diote Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuari. Erretiro partziala hartua dutenak ere joan daitezke, eta Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuari jakinarazi beharko diote.

6. ARTIKULUA

Ebaluazioa

2018an zehar, plana ebaluatzeke prozesuak jarraituko du, urteko bi unetan (ekainean eta azaroan). Prozesu hori sail bakoitzeko zerbitzu orokorren bidez abiaraziko da eta honako helburu hau izango du: trebakuntza jarduerak lanpostuetan izan duten eragina eta eraginkortasuna aztertzea.

7. ARTIKULUA

Aurrekontu-erabilgarritasuna

Plana aurrekontuan erabilgarri dauden baliabideei lotuta egongo da; hortaz ezin izango da horretarako ezarritako zenbateko osoa gainditzen duen trebakuntzako ekintzarik egin.